

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2018

35/2018 EBAZPENA, otsailaren 13koa

EUSKAL HIZKUNTZA

KALIFIKAZIOA

DEITURAK:

IZENA:

NANa/AIZ:

KIRMEN URIBE

Oporretan edo

Astegun buruzuri batean aurkitu nuen kalean mutila. Aspaldiko laguna zen, urteak ziren elkar ikusten ez genuela. Banekien bera lantegi batean hasi zela lanean gu gazte ginela, gutariko aurrenetakoa izan zen ikasketak bukatu eta lanpostua lortzen. Geroztik, behin edo behin gertatu gara elkarrekin. Horrexegatik harritu ninduen hura kalean ikusteak, astegun buruzuri batean eta laneko orduetan, erosketak egiten.

Lagunak argitu zidan badirela hilabete batzuk ostiraletan lan egiten ez dutena; **astean lau egun baino ez dutela lan egiten fabrikari**, eta Gabonetako oporrak ere hamabost egunetakoak hartuko zituztela. “Sekula ez dut Gabonetan horrenbeste egun libre izan”, esan zidan berak. “Ikasle garaietatik, hain zuzen”. Oporrak egoera ekonomikoak bultzatuta hartu behar izan dituzte. Esaldi bakar batekin azaldu zidan beren egoera. “Etxerik egiten ez denez, sukaldarik ere ez da muntatzen, eta gure lantegian sukaldarako plakak egiten ditugu. Eskaririk ez dagoenez, ezin dugu lanik egin”. Arduratuta zegoen laguna, baina, hala ere, gauzak alde onetik ikusten ahalegintzen zen, gazteak ginenean bezala. “Irakurtzeko astia dut orain, **aspalditik mesanotxean pilatuta ditudan liburuak** bukatuko ditut Gabonetako oporretan”.

Laguna agurtu eta etxerantz egin nuen neuk ere. Bidean Marxen utopia hartaz gogoratu nintzen. Marxek uste zuen noizbait gizakiak aisialdia baino ez duela izango, lanik egingo ez den garaia iritsiko dela goiz edo berandu. Dena den, ez dut uste egoera ekonomiko okerrak bultzatutako derrigorrezko aisialdia honetaz ari zenik.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2018

35/2018 EBAZPENA, otsailaren 13koa

EUSKAL HIZKUNTZA

1. IZENBURUA. Ipini bertze izenburua testurari **(p1)**

2. GAIA / ESANAHIA

a) Zein da testuraren gaia? Arrazoitu **(p1)**

b) Berridatz ezazu azpimarratuta dagoena esanahia aldatu gabe **(p1)**

3. EGITURA (2p). Azaldu testuaren egitura.

4. LABURPENA (2p).

5. TESTU MOTA (2p). Azaldu testu mota horren ezaugarriak.

6. ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (1p)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2018

35/2018 EBAZPENA, otsailaren 13koa

EUSKAL HIZKUNTZA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2018

35/2018 EBAZPENA, otsailaren 13koa

EUSKAL HIZKUNTZA